

Publizitate-euskarriak




Erakusketari agurgarria:

Dokumentu honetan, hainbat promozio-proposamen aurkituko dituzu zure marka nabarmentzeko, lehiakideengandik bereizteko eta bisitarien arreta erakartzeko.

Hain zuzen ere, xehetasun horiek eranstean dute balioa, marka nabarmentzen dutelako, lidergoa erakusten, enpresaren ahalmena eta indarra azpimarratzen, enpresaren balioak agerian jartzen... Hau da, erakusketa batera joatean bezeroak ikusi nahi duen guztia.

Jarri gurekin harremanetan aholkularitza jasotzeko eta zure beharretara eta aurrekontura ongien egokitzen den produktua eskaintzeko. Zure beharretara eta sormenezko diseinura egokitutako proposamen bat ere presta dezakegu, publizitate-inpaktu berezia izango duena. Horretarako, txosten honetan aurkeztutako euskarri generikoak zein esparruak eskaintzen dizkigun aukera amaigabeak konbinatuko ditugu.

Amaitzeko, jakinarazi nahi dizugu eskaintzen ditugun euskarrietako batzuek berrerabil daitezkeela gero ere; hortaz, euskarriak kentzeko eta biltzeko zerbitzu bat dugu, haiek eraman eta berriro erabil ahal izan ditzazun. Euskarri horiek sinboloa dute.  Eskaeran adierazi behar da euskarriak kentzeko eta biltzeko zerbitzua erabiliko duzun.

Edozer gauza behar izanez gero, jarri lasai gurekin harremanetan.

Tfnoak.: +34 94 404 00 88 / 32

Helbide elektronikoa: wmw@bec.eu

BECek eskubidea izango du hemen aurkeztu ez diren publizitate-euskarri gehigarriak sortu eta eskaintzeko, dokumentu hau argitaratu ondoren agertzen diren eskaeren eta/edo aukeren arabera.

Neurriak: altuera x zabalera

Esparrua



1 - Kanpoaldea



Zure marka eta mezua esparruaren kanpoaldean



Logotipoak erakusketaren olanaren ondoan



Oso inpaktu handiko euskarria da; bertan, zure erakusketaren olanaren ondoan egongo da erakusketa egin zenbait hilabetetan, esparruaren kanpoko fatxadan. Autobidetik ikusten da (egunean 150.000 ibilgailu baino gehiago pasatzen dira).

Tamaina: 2,5 m x 5 m

Tokia:

4. pabiloiaren kanpoko horma.



Kanpoko olana (2. pabiloia)



Nabarmendu marka pabiloiaren kanpoko fatxadan, metro-geltokiaren eta sarrera nagusiaren artean. Oso ondo ikusten dute eremua erakusketara autoz (aparkalekurako sarbideak) eta metroz etortzen direnek.

Tamaina:

8 m x 3 m

Tokia:

2. pabiloiaren kanpoko horma, metro-geltokiaren eta BECekeo sarrera nagusiaren artean.

Zure marka eta mezua esparrura autoz etortzen direnek ikusteko moduan



Irudi bat aparkalekura sartzeko ate handian

Aurkeztu zure marka erakusketara ibilgailu partikularrean etortzen direnei. Aparkalekura sartzeko tunelean sartu bezain laster, zure marka nabarmendu egingo da, tamaina handia izango baitu.

Tamaina:

- A sarrera: 2 m x 1,6 m
- B sarrera: 2 m x 3,5 m
- C sarrera: 2 m x 2 m

Tokia:

Lur azpiko aparkalekurako sarrerak



Aparkalekuko langak

Aparkalekura sartzeko eta handik irteteko langetan jartzen den publizitate-euskarria. Asko ikusten da, eta oso eksklusiboa da.

Tamaina: 0,3 m x 0,5 m


Tokia:

Aparkalekura sartzeko langak
Aparkalekutik irteteko langak

2 – Barrualdea



Zure marka eta mezua esparruaren sarrera nagusian



Olanak sarrera nagusiko zutabeak estaltzen




Esparruaren sarreran dauden zutabe erraldoiek ongietorria emango diete bisitariari, eta zure enpresaren marka eta mezua erakutsiko dizkiete.

Inpaktu handia, tamainagatik, kokapenagatik eta eskusibotasunagatik.

Tamaina: 5 m x 5,5 m (perimetroa)

Tokia:
Aondo nagusia.



Biniloak sarrera nagusira daramaten eskaileretan

Zutabeak bezala, sarrera nagusiko erdiko eskailerak ere euskarri eskusiboa eta txundigarria da bisitariarentzat. 28 eskailera-mailak erabiliz mezu bat emateko konposizio originalak indar handiz erakartzen du bisitarien arreta.

Tamaina: 28 eskailera-maila (0,13 m x 2 m)

Tokia:
Aondo nagusia

Zure marka eta mezua esparruko hainbat tokitan



Banderak erdiko korridorean



Ondo ikusten den euskarria; mezu ugari jar daitezke bisitariarentzat (marka, produktua, standaren kokapena...).

Tamaina: 5 m x 2 m (bi aldeetatik)

Tokia: erdiko korridorea (ataria)



Luma-kartoia hainbat tokitan



Inpaktu handiko euskarria, bisitariaren ibilbidean eta begien parean jartzen baita. Mezu garatuagoak jar daitezke bertan, irakurlea gertu egongo baita. Oso erabilgarria da azokako jardueren alderdi bereziak nabarmentzeko (hitzaldiak, produktuen aurkezpenak...).

Tamaina: 5 m x 2 m (bi aldeetatik)

Tokia: hainbat toki



Belak hainbat tokitan



Oso euskarri freskoa eta erakargarria. Dinamismoa erakusten dute, mugitu egiten direlako. Belak bakarrik kontrata daitezke, inpaktu handia baitute bisitariengan.

Tamaina: ~ 4 m-ko garaiera x 0,85 m-ko zabalera

Tokia: hainbat toki

Zure marka eta mezua esparruko hainbat tokitan



Zirkuluak zoruan

Euskarri deigarria; bisitariak bidean aurkitzen du.

Tamaina: 2 m-ko diametroa

Tokia: hainbat toki



Konposizio libreko biniloa

Binilo zirkularren antzekoa da, baina nahi den konposizioa egiteko aukera ematen du, eta horrek inpaktu handia eragiten du (produktua, aztarnak, geziak...).

Tamaina: mugarik gabe

Tokia: hainbat toki

Zure marka eta mezua pabiloiatarako sarreran



Olanak pabiloira sartzeko barandan


Pabiloian sartzen direnek eta barruan dabiltzanek ikusi ahal izango dute zure mezua.

Tamaina: 3 m x 1 m

Tokia: pabiloietan sartzeko barandan.



Zure marka eta mezua esparruko igogailuetan



Binilo bat igogailuko ateetan

Bultzatu zure marka igogailuetan. Bisitariak erakusketa egingo den lekura sartzeko mailako kanpoko ateetan eta kabinaren barruan ikusiko dute zure marka.

Horrez gain, aparkalekuaren mailetako kanpoko atek errotulatzeko zerbitzua kontrata daiteke.

Tamaina: igogailuko atek

Tokia: sarrera nagusia eta erdiko korridorea (ataria)



Zure marka eta mezua esparruko komunitan



Errotuluak komunitako ateetan

Goitik behera errotulatuko da komunitako atea.

Tamaina: komunitako atea + lotura-egitura finkoak

Tokia: atariko eta pabiloietako komunak



Errotuluak komunitako ispiluan + Pantaila bat pixalekuetan

Logotipoaren errotulua jarriko da komuneko ispiluan.

Tamaina: komunaren arabera

Tokia: atariko eta pabiloietako komunak



Zure marka eta mezua esparruko hainbat tokian, bideo-euskarrian



Proiektzio bat plasmazko pantailatan

Zure irudia edo mezua komertziala esparruko hainbat tokitan dauden plasmazko pantailatan.

Tamaina: hainbat tamaina, pantailaren eta formatuaren arabera (bertikala edo horizontala)

Tokia: hainbat toki

WORLD MARITIME WEEK

BILBAO EXHIBITION CENTRE

Ronda de Azkue 1

48902 Ansio - Barakaldo



BE!C!
BILBAO
EXHIBITION
CENTRE

EXPOSSIBLE!